



Azpeitiko Udala

**HERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZA PROGRAMA
2023 -II. ERANSKINA-: INDUSTRIA PROIEKTU ESTRATEGIKO EDO
BERRITZAILEAK, ERAIKUNTZA SEKTOREKO PROIEKTUAK LAGUNTZEKO
DIRULAGUNTZAK. (23-8D / 2023SUSD)**

-PROZEDURAREN EBAZPEN-

Alkatetzak 2023ko maiatzaren 26an emandako ebazpenaren bidez, Azpeitiko Herriko Ekonomia sustatzera zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak eta 2023 ekitaldirako deialdia onartu zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko ekainaren 7an argitaratua, 109. zk).

Deialdi horretan ondoren adierazten diren laguntza modalitateak aurreikusten ziren, bakoitzari dagozkion helburuekin:

1. eranskina: Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.

2. eranskina: Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak.

3. eranskina: Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak

4. eranskina: I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntza modalitate hau arautzen duen oinarrien 4.3 puntuan eskaerak aurkezteko epea zehazten du. Eskaerak aurkezteko epe-muga 2023ko urriaren 15ean amaitu zen, eta dagokigun honetan, epe barruan aurkeztu diren 125 eskaera erabakiko dira.

Dirulaguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9. puntuan ezartzen denez, eskaerak Udaleko Idazkaritza Saileko teknikariak baloratu ditu Azpeitia Berritzen S.A.ko teknikariekin eta Iraurgi Lantzen SA lantaldearekin. Balorazio-txostena Udalaren Ekonomia Batzordeari igorri zitzaion 2023ko abenduaren 18an, eta honek bere egin ondoren, dagokion ebazpen proposamen arrazoitua egin dio Alkatetzari, baieztatu kasuetan bakoitzean zenbatekoa zehaztuz. Oinarrien 2.9 puntuaren arabera eskaera batzuk jarduera lizentzia erregularizatze baliabidez onartuko dira.

Ekonomia Batzorde berriemaileak egindako ebazpen proposamena ikusita, Alkatetza honek prozedura ebatziko du, eta Laguntzaren oinarrien 10.2 artikulua arabera, deialdiaren ebazpena Udalaren Web orrian argitaratuko da dirulaguntza programa atalean. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du. Argitalpen egunaren biharamunetik hasita jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko eta Estatuko Dirulaguntzen Datu Basean ere argitaratuko da.

Oinarri orokorreko 12. puntuak onartutako laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela arautzen du. Lehenengo % 40ko ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da, eta bigarrena, gainerako % 60koa proiektua amaitu eta dirulaguntzaren helburua bete



Azpeitiko Udala

dela justifikatu ondoren. Hala ere, erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bete eta Udalaren iritziz behar bezala justifikatu badu, lehen ordainketaren fase honetan laguntzaren kopuru osoa emango da.

Laguntzaren ordainketak Udalaren 2022eko aurrekontuaren 1.1100.471.241.00.01.2023 "Transf. arruntak, Ekonomia sustapena" eta 1.1100.471.241.00.02.2023 "Transf. arruntak, zerbitzu sektorea eta lehen sektorearen sustapena" partidatik egingo dira.

Eta Alkatetza izanik laguntza ebazteko eskumena duen organoa, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Udalaren alkateak, **ERABAKI DUT**:

Lehena: Ematea eta dagokion ordainketa egitea **segidan** jasotako taulan zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako dirulaguntzak, Azpeitiko herriko ekonomia sustatzeko 2023. ekitaldirako dirulaguntza deialdiko II. Eranskinekoak -Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak laguntzeko bideratutako dirulaguntzak-.

*Iadanik laguntza bere osotasunean eta modu egokian justifikatu duten onuradunek kopuru osoa jasoko dute.

Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2023 **Deialdia: (2023ko ekainak 7ko GAOan argitaratuak 109 zk.)**

-INSTRUKZIOAREN EMAITZA-

II ERANSKINA- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Prop	Proiektuaren izena	Lagungarri den gastua	Zenbatekoa Arrazoiak	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60	Egiaztagirak aurkezteko epea
16	2023-09-08	2023SUSD0016	A20044707	Bai	Inbertsioa	345.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
25	2023-09-19	2023SUSD0025	A58554007	Bai	Inbertsioa	12.740,00 €	3.822,00 €	0,00 €	3.822,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
31	2023-09-22	2023SUSD0031	Y5046788G	Ez	Inbertsioa eraikuntza	55.000,00€	5.000,00€	2.000,00€	3.000,00€	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
48	2023-10-03	2023SUSD0048	B75140830	Bai	Inbertsioa	20.484,83 €	5.000,00 €	5.000,00 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
64	2023-10-09	2023SUSD0064	B20037131	Bai	Proiektua	25.330,00 €	8.000,00 €	0,00 €	8.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
67	2023-10-09	2023SUSD0067	B20153532	Bai	Inbertsioa	79.844,54 €	10.000,00 €	0,00 €	10.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
75	2023-10-10	2023SUSD0075	B20869947	Bai	Inbertsioa	135.000,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
76	2023-10-10	2023SUSD0076	B42764464	Bai	Inbertsioa	53.948,64 €	10.000,00 €	0,00 €	10.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
78	2023-10-10	2023SUSD0078	B20973012	Bai	Inbertsioa	174.568,00 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
84	2023-10-11	2023SUSD0084	B75110924	Bai	Inbertsioa	6.821,21 €	2.046,36 €	2.046,36 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
85	2023-10-11	2023SUSD0085	B75069286	Bai	Proiektua	10.058,38 €	2.000,00 €	0,00 €	2.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
90	2023-10-11	2023SUSD0090	A20036059	Bai	Inbertsioa	67.390,74 €	10.000,00 €	4.000,00 €	6.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
91	2023-10-11	2023SUSD0091	B20488649	Bai	Inbertsioa	18.840,00 €	5.000,00 €	0,00 €	5.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
99	2023-10-11	2023SUSD0099	B75134098	Bai	Proiektua	17.000,00 €	6.000,00 €	6.000,00 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
100	2023-10-11	2023SUSD0100	B20785176	Bai	Proiektua	29.654,23 €	8.000,00 €	8.000,00 €		Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean



Azpeitiko Udala

107	2023-10-11	2023SUSD0107	A20069860	Bai	Inbertsioa	275.000,00 €	10.000,00 €	0,00 €	10.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
108	2023-10-11	2023SUSD0108	B20837654	Bai	Proiektua	5.411,00 €	6.000,00 €	0,00 €	6.000,00 €	Jarduketa datak amaitzetik hilabeteko epean
GUZTIRA:							120.868,36 €	51.046,36 €	69.822,00 €	

Oinarrietako 2.9 puntuko baldintza betetzen ez duten honako espediente hauetako onuradunen laguntzaren ordainketa baldintzatuta geratzea jarduera lizentzia eskuratzeko egin beharreko izapidetza burutu arte: 2023SUSD0025, 2023SUSD0064, 2023SUSD0067, 2023SUSD0076, 2023SUSD0085, 2023SUSD0091, 2023SUSD0107 eta 2023SUSD0108.

Bigarrena: Ezezte segidan jasotako taulan zerrendatzen diren eskatzaileei bertan adierazitako arrazoiengatik, Azpeitiko herriko ekonomia sustatzeko 2022. ekitaldirako dirulaguntza deialdiko II. Eranskinekoak -Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak laguntzeko bideratutako dirulaguntzak-.

Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2023 Deialdia: (2023ko ekainak 7ko GAOan argitaratuak 109 zk.)

-INSTRUKZIOAREN EMAITZA-

II ERANSKINA- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak, eraikuntza sektoreko proiektuak

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Prop	Proiektuaren izena	Lagungarri den gastua	Zenbatekoa Arrazoiak	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60	Egiaztagirak aurkezteko epea
106	2023-10-11	2023SUSD0106	A20069860	Ez	Proiektua	Jarduketa data epeak ez dira bete				

Hirugarrena: Alkatetzaren erabaki hau Udalaren web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko dirulaguntzen datu basean ere.

Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebazitako laguntzen berri emateko.

Laugarrena: onuradunek eranskin honetan honako epeak bete beharko dituzte justifikazio agiriak aurkezteko:

- Justifikaziorako dokumentazioa hilabeteko epean aurkeztu beharko da, azpillerro bakoitzean zehaztutako diruz laguntzeko jarduketa-datak amaitzen direnetik zenba tzen hasita.

Bosgarrena: Jarduera berriak diren kasuetan edo oinarrietako 2.9 puntuko baldintza (jarduera lizentzia) erregularizatzea, udalean jarduerari dagokion tramitazioa amaituta edo tramitazioan edukitzea eskatuko da eta laguntzaren justifikazioarekin egiaztatu beharko da.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela,



Azpeitiko Udala

egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Azpeitia, 2023ko abenduaren 28a
ALKATEA,

